

## **MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO TITULAZIOETAKO HAUTAZKO KREDITUEN AITORPENA**

EHUko araudi orokorraren arabera, kredituengatiko onarpen akademikoaren xede izan daitezke kultura, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak-jarduerak, betiere gehienez ikasketa-plan osoko 6 ECTS kreditu lortu ahal izango direlarik.

6 ECTS kredituko muga horretan sartzen dira graduan onartutako curriculumetik kanpoko jarduerak guztiak (kanpo-praktikak, jardunaldiak eta mintegiak, kultur, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak-jarduerak gain).

Ikastegiak 6 ECTS kredituko programa itxi baten bidez onartu eta eskaini dituen kanpoko borondatezko praktiken kasuan izan ezik, curriculumetik kanpoko gainerako jarduerak ikasturte bakoitzeko 3 ECTS onartuko dituzte gehienez.

Ikastegiak ez du hautazko kredituen aitortzea baimenduko titulazioaren hautazko kredituen gehieneko kopurua bete den kasuetan (Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegiaren [25. Artikulua](#)).

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak egiaztatu behar dituen jardueren kasuan, Akademia Antolakuntzako Batzordeak ezarriko du zein diren jarduerak bakoitzean hautazko kredituak aitortzeko irizpideak. Irizpide horiek honelako alderdiak hartuko dituzte kontuan: eskatutako aurrez-aurrekotasun maila, jardueraren prestakuntzarako inplikazioa edo jardueraren ondorengo onura, jardueraren intentsitatea (etengabeko arreta edo arreta etena), etab.

Osasun arloko jardueren kasuan, aurrez aurreko 15 ordu beharko dira ECTS kreditu baten aitortzea eskatzeko. Irizpideak aldeztatik ezar daitezke fakultatearen eta osasun zientzietako prestakuntza jardueren sustapenarekin lotutako erakundearen artean (lanbide elkargoak edo antzekoak, esaterako) erabakitako jardueretarako.

Modu indibidualean ere ezar daitezke aldi behingo jardueretarako, fakultateko ikasleek antolatutako jarduerak lehenetsita. Jarduera horiek iragarri egingo dira ikasleak bertaratu eta kredituak lor ditzaten ahalbidetzeko.

### **Ikasleek kredituen aitortzea eskatzeko prozedura**

Ikastegiak ezarritako epean, ikasleak nahi duen kreditu kopurua aitortzeko eskaera aurkeztuko du, dagozkion akreditazioak eta ziurtagiriak aurkeztu



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA  
ETA ERIZAINZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE MEDICINA  
Y ENFERMERÍA

### **Erakunde antolatzaileak kredituen aitortpena eskatzeko prozedura**

Bi hilabete lehenago, ekitaldiaren antolatzaileek eskaera orria (I. eranskina) beteko dute dekanuari zuzenduta. Eskaera Akademia Antolakuntzako Batzordeak aztertu eta balioetsiko du. Batzorde horrekezarriko du zenbat ECTS kreditu aitortuko diren etaz baldintza bete beharko diren kredituak aitortzeko, lehen zehaztu bezala.

## I. ERANSKINA

### MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO IKASLEEI CURRÍCULUMETIK KANPOKO JARDUEREN BIDEZ HAUTAZKO KREDITUAK AITORTZEKO ANTOLATZAILEEN ESKAERA ORRIA

Jarduera mota: \_\_\_\_\_

Jardueraren izena: \_\_\_\_\_

Jarduera egiteko tokia: \_\_\_\_\_ Data: \_\_\_\_\_

Aurreikusitako parte hartzaileak: \_\_\_\_\_ Ordu kopurua: \_\_\_\_\_

Aurreikusitako asistentzia kontrola: \_\_\_\_\_

Parte hartze mota eta aurreikusitako egiaztagiria: *bertaratua hizlaria*  
*bestelakoak*

Jarduera egitea proposatu duen erakundearen identifikazioa eta jardueraren arduraduna:  
\_\_\_\_\_

Proposamena abalatzten duen UPV/EHUren Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle-ikertzailea:  
\_\_\_\_\_

Jardueraren laburpena (200 hitz, gehienez) (**Erantsi programa, halakorik bada**):

**Oharra:** Ekitaldiaren antolatzaileak arduratuko dira asistentzia kontrolaz. Asistentzia hori %85etik gorakoa izan behar da baliozko bertaratze ziurtagiri bat emateko hautazko kredituak aitortzeari begira. Asistentzia kontrolak ikastegira igorriko dira, baita parte hartzea egiaztatuta duten ikasleen zerrendak ere.

Data eta sinadura

Sin.: .....